

GAVARNIEN MADRIL ETA KATALUNIako HIRU ESKALATZAILE ZENDU DIRA ETA BELGIKAR BAT BALAITOUSEN

# Lau mendizale hil dira Pirinioetan izandako bi istriputan

Lau lagun hil eta lau zauritu dira atzo Pirinioetako Gavarnien eta Balaitousen izandako bi mendi istripuetan. Gorpuak mendian geratu ziren atzo eta gaur erreskatuko dituzte. Erreskate lanetan ari ziren bi jandarma arinago zauritu dira.

Erredakzioa / Donostia

GAVARNIEKO Zirkuko istripua arratsaldeko 15.00etan izan zen, hiru mendizale talde izotz horma bat igotzen ari zirela. 1.800 metroko altueran zeudela, izotz plaka batzuk erori ziren eta eskalatzailak beraiekin eraman zituzten. Istripuaren ondorioz, Jose Luis Garcia, Jorge Pereira eta Martin Delasco mendizaleak hil egin ziren. Haien gorpuak amildegri baten amaieran geratu ziren eta ezin izan zituzten atzo erreskatatu argi gutxi zegoelako. Erreskate taldeak gaur goizean itzuliko dira Gavarnieko zirkura eta gorpuak jasoko dituzte. Hiru biktimetatik bi Madrillgoak ziren eta bestea, berriz, Kataluniakoa.

Beste lau lagun ere larri zauritu ziren eta Tarbesko eta Paueko ospitaletara eraman zituzten. Egoera larrienean dagoena frantziar herritartasuna duen eskalatzaille bat da, koma egoeran baitago Paueko erietxean. Beste bi frantziar eta Espainiako herritartasuna duen beste bat larri daude.

Atzo erreskate lanetan zeuden bi jandarmek ere zauriak jasan zituzten, beste izotz zati bat erori zelako haiek gainean zirela. Alta, erreskategile horien egoera ez da larria.

Azken asteotako eguraldi beroren ondorioz, izotza bigun dago eta ohi baino errazago erortzen da.

Duela bi aste beste mendizale katalan bat hil zen Gavarnien inguruko Taillon mendia jaisten ari zela. Harekin zegoen beste lagun bat onik heldu zen Gavarnien herrira, ia bi egunez elur artean ibili eta gero.



Daniel Forte mendiko gidaria, atzo Grenobleko Auzitegira heltzean.

GERARD MALIE / EPA

Bestetik, Gavarnietik mendebaldera dagoen Balaitous (3.146 metro) tontorraren inguruan

zebilan Belgikako mendizale bat ere hil egin zen atzo, 600 metroko amildegri batetik behera erorita. Belgikarra 2.200 metrotan zegoen.

## Les Orresko mendi gidaria askatu dute

LES ORRESKO estaziotik hurbil (Alpe Garaiak), iragan urtarrilaren 23an elurroso batek harrapatu zuen ibiltzaille taldea gidatzen zuen Daniel Forte mendiko laguntzailea libro atera zen atzo arratsaldean Gapeko espetxetik. Ordu batzuk lehenago Grenobleko dei auzitegiak aske jartzeko agindua eman zuen, nahiz eta bezperan prokuradoreak eskatu zuen giltzapean atxikitzeko. Daniel Forte presondegiaren saihetseko ate batetik irten zen, espetxe aitzinean bilduta ziren kazetarietara ihes egiteko gisan.

Mendi laguntzailea auzipetua da, «arreta eskasak eragindako hilketa» batengatik. Izan ere, iragan urtarrilaren 23an, 32 haur eta heldu Crete du Lauzet malda patartsurat eraman zituen elu-jausi arriskuak goren-gorenean zirelarik. Hala, ibiltzailleek berek abiarazi zuten elurroso handiak bederatzi haur eta bi heldu bete-bete harrapatu zituen. Gazte haiek eta laguntzaileak Montigny-le-Bretonneuxko (Yvelines) Saint-François-d'Assises kolejioko ikasleak eta irakasleak ziren. Hain zuzen, atzo jakin zen biktimen senideek elkarte bat eraikitzea erabaki dutela akusazio partikular gisa azaltzeko istripuaren auzian. X

## Bernard Bonnetek «ohore handiz» hartu zuen Claude Erignac prefetaren kargua Korsikan

Pariserat

eramandako hiru korsikar abertzaleak giltzapetu zituzten atzo

Allande Sokarros / Baiona

BERNARD BONNET Korsikako eskualde prefet berriak bere kargua hartu zuen atzo, Jean-Pierre Chevenement Barne ministroaren eskutik. Joan zen larunbatean atentatuan hil zuten Claude Erignac prefetaren lekua «ohore handiz» hartzen zuela erran zuen Bernard Bonnetek.

Hain zuzen, prefeta hil zuten tokira joan zen Bernard Bonnet eta lore sorta bat jarri zuen. Prefet berria bizkarzainez ingurutua zen, berarekin zebilen Jean-Pierre Chevenement bezala. Astebez hiru garren aldikotz etorri zen Korsikarat Barne ministroa, eta prefet berriaz zehaztu zuenez, «elkarrizketari atxikia den gizona da, baita errepublikano kementsua ere». «Garai bada jokaera erdi-mafiosoak geldiaraz ditzaten», gaineratu zuen. Chevenementek berriro ere Korsikako herriatarrei eskatu zien atentatuaren ikerketa daramatzenak lagundu ditzaten testigantzak eta informazioa emanda.

## Poliziak loturarik ez du atzeman hilketaren eta Sampieruren artean

Atzo, bestalde, ostegunean Pariserat eraman zituzten hiru korsikar abertzaleak auzipetu eta giltzaperatu zituzten. Marcel Lorenzoni, Paul-Dominique Bozzi eta Paul Poggi bi sumario ezberdinetan auzipetu zituzten, bata Frantziako Administrazio Eskola Nazionalaren (ENA) aurka, 1997ko irailaren 4an, Estrasburgon (Alsazia) gertatu zen atentatuaren, eta bestea Pietrosellako (Hego Korsika) Jandarmeriaren kontra 1997ko irailaren 6an egin zen erasoaren. Bi ekintza horiek bere gain hartu zituen ordura arte ezagutua ez zen Sampieru izeneko talde berriak. Pietrosellako erasoan lapurtu zituzten armetatik bat, Erignac prefetaren hiltzeko erabili zuten 9 milimetroko Beretta pistola zen eta horregatik zituen bi gertakariak lotu Poliziak. Alabaina, Aiacciun eta Parisen hiru korsikar abertzaleei egin zizkieten galdaketeen ondorioz, ikerketa egileek ez zuten inolako loturarik atzeman haien eta prefetaren aurkako atentatuaren artean. Hortaz, Jean-Louis Bruguiere epaile antiterroristak «gaizkile elkarte bateko kide izateaz eta armak eta lehergaiak edukitzeaz» auzipetu zituen Lorenzoni, Bozzi eta Poggi. Hirurak giltzapetzeko agindu zuen. X

## Galiziako Gobernu ordezkariak «sekta arriskutsuko buru» deitu dio Beirasi bere aurkako protestaren bezperan

«Oinarrizko eskubideen aldeko manifestazioa» izango da gaur Santiagon sindikatuek eta oposizioak deituta

Erredakzioa / Donostia

ESPAINIAKO Poliziak azkenaldian Galizian erabili duen bortzakeria salatzeke eta Juan Miguel Diz Guedes Gobernu ordezkariaren jarrera salatzeke manifestazioa egingo dute gaur goizean Santiagon. «Oinarrizko eskubideen defentsaren aldeko manifestazioa» sindikatuek antolatuta dute eta oposizioaren sustengua du.

Herenegun, manifestatzeko deia egin duten bost sindikatuek (CIG, SLG, CCOO, UGT eta UAAA) Diz Guedesen aurkako salaketa aurkeztu zuten, oinarrizko eskubideen bortxaketatik. Atzo, berriz, Espainiako Go-

bernuaren ordezkariak oso gogor erantzun zien manifestazioarako deia egin dutenei. Galiziako Bloke Nazionalistako (BNG) bozeramaile Xose Manuel Beirasi «iraintzaille profesional eta sekta arriskutsu bateko predikatzaile» deitu zion. Diz Guedesen arabera, bere jokabidearen aurkako protesta «BNGk prestatutako kanpaina bat da, eta PSOEek berriz ere bere burua manipulatzeko utzi du». Gobernu ordezkariak GAL auzia gogora ekarri zuen PSOEri eraso egiteko. «PSOE ez da alderdi egokiena eskubideen bortxaketaz hitz egiteko, sozialista asko baitaude biziaren aurkako auzi kriminalengatik auzipetuta».

Diz Guedesek azpimarratu zuen sindikatuen eta oposizioaren salaketak faltsuak direla eta Galiziaren irudia desitxuratzeaz akusatu zituen. Halaber, Gobernu ordezkariak sutsuki defenditu zuen bere aginduetara dagoen Poliziak azken mobilizazioetan izandako jokaera. Bereziki, Diz Guedesek txalotu egin zuen urtarrilaren 20an esne ekoizleen protestan (traktorada) segurtasun indarrek egindakoa, «Galiziako errepideetan zirkulazio librea bermatu baizik ez zuten egin».

Galiziako oposizioa alderdiek (BNG, PSdeG-PSOE eta EU-EG) eta sindikatu gutiz gehienek oso gogor kritikatu dute Diz Gue-

des eta harekin batera Galiziako Xunta, azken manifestazio eta protesta guztiak indarrez errepromitu dituztelako. Jose Maria Aznarren gobernuak Diz Guedes Galiziako bere ordezkari izendatu zuenetik asko ugalduta dira Poliziaren oldarrak. Povisa lantegiko langileak, Santiagoko ikasle independentistak eta A Capelako emakume eta zaharrak, besteak beste, izan dira Diz Guedesek bidalitako polizien kolpeak jaso dituztenak. BNGko Beirasek Galizia «larrialdi egoera jartzeaz» akusatu ditu Diz Guedes eta Xunta. Gobernu ordezkariari buruz, Beirasek esan du «Galiziako herritarren lehen etsaia» dela. X